

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

ANTROPOLOGIA

Neandertal “eroak”?

TEORIA BERRI BATEN ARABERA, baliteke neandertalak behien entzefalopatia espongi-formearen antzeko gaixotasun baten eraginez desagertu izana, kanibalismoa praktikatzaren ondorioz.

Orain 30.000 urte desagertu zen Neandertaleko gizakia, arrazoi ezezagunak direla eta. Teoria asko plazaratu da, hala nola aldaketa klimatikoa edo *homo sapiens sapiens*-aren eragina, baina ezin izan da ezer ere frogatu.

Oxfordeko Unibertsitateko Simon Underdown ikerlariak plazaratu du arestian aipatu teoria berria. Horretarako, 1900 eta 1958 urteetan Papuasía-Ginea Berrian gertatutakoa aztertu du. Han, antza denez, kuru izeneko gaixotasunak –behi eroen gaitzaren oso antzekoa– ia bertako biztanle



Kanibalismoak eragindako gaixotasun batek desagerrarazi zituen neandertalak?

O s a s u n a

JABIER AGIRRE

Kafeinak abortu arriskua gehitzen du



Ikerketa batek baieztatu du kafeina txarra dela haurdun dauden emakumeentzat.

AURREZ EGINDAKO ikerketa batzuek iradoki zuten, eta haurdunaldi irauten duen bederatzil hilabeteetan zurrumuruak hortxe ibiltzen dira, emakumeen beldurak areagotuz. Baina orain arte inoiz ez da Kaiser Fundazioko ikertzaileek bezain argi frogatu kafeinaren eta berezko abortuen arris-

kuaren arteko harremana. Lan horrek dioenez, haurdunaldian 200 miligramo kafeina –bi katilukada– edo gehiago hartzen duten emakumeek abortua izateko arrisku bikoitza dute.

American Journal of Obstetrics and Gynecology aldizkarian argitaratu den ikerketak 1.063 emakume haurdun aztertu zituen 1996. eta 1998. urteen artean, AEBetako San Frantzisko hirian. Parte hartzaile guztiak adierazi zuten zenbat edari kontsumitzen zuten egunean, bai kafeina zutenak eta baita kafeinarik gabekoak ere, beren azkeneko hile-

kotik hasita. Haurdun geratu zirenetik kontsumo-ohiturak aldatu zituzten ala ez ere azaldu zuten. Kafeina zuten edarien artean ondorengoak sartu ziren: kafea, baita kafeinagabea ere, tea, edari karbonatodunak eta txokolate beroa.

%25ak (264 emakumek) ez zuten batera kafeinarik kontsumitu haurdun zegoen bitartean, %60ak (630 emakumek) 200 miligramo baino gutxiago hartzen zituen egunean, eta gainerako %15ak (164 emakumek) kantitate hori baino gehiago hartzen zuten. Kafeina gehien kontsumitzen zutenak emakume zuriak ziren, diru-sarrerara maila altua zutenak.

Ohiko arrisku faktoreak –adina, tabakoa, edo goizeko goragaleak eta gorakoak– albo batera utzita, ikertzaileek zalantzarik gabe baieztatu zuten kafeinak abortua izateko arriskua nabarmen handitzen duela. Ikerketan parte hartu zuten 172 emakumek abortua izan zuten (%16,8ak). Eta kafeinaren eta abortuaren arteko harremana begi-bistakoa izan zen bestelako arrisku-faktoririk ez zuten emakumeengan. Mezua argia da: emakumeek kafeina hartzeari erabat utzi beharko liekete haurdunaldi irauten duen bitartean. Eta benetan hartu behar izanez gero, kontsumoa eguneko kafe katilukada bakarrera murriztu beharko lukete.

guztiak desagerrarazi zituen. Uhartean oso ohikoak ziren zenbait hileta-erritu berezi, kanibalismoa eta guzti. Egun, oraindik, kuruak heriotzak sortzen ditu eremu hartan.

Neandertalaren aztarna nagusiak orain 100.000 urte ingurukoak dira. Haiengan kanibalismoa oso ohikoa zela frogatu izan da. Simon Underdownek egindako kalkuluen arabera, 15.000 norbanakok osatutako taldea 250 urtean desagertu daitezke entzefalopatiaren ondorioz. Gainera, kanibalismoa ez da kutsatzeko bide bakarra. Harritzko tresnek, esaterako, oso ongi garraiatzen dute gaixotasuna. ■

TABAKISMOA

Zergatik eragiten du minbizia erretzeak?

TABAKOA birika-minbiziaren arrazoi nagusietakoa da, baina ez da ezagutzen birika-zelulak minbizi-zelula bihurtzeko mekanismoa. Kontuan hartu behar da zigarro batek 4.000 substantzia baino gehiago dituela, eta horietatik 40 jotzen direla minbizi eragileak.

Journal de la Société Américaine de Biologie Expérimentale aldizkarian argitaratu denez, Kaliforniako Unibertsitateko ikerlari batzuen arabera hidrogeno peroxidoa —ur oxigenatua— omen da minbizi

eragilerik nagusia. Laborategien hainbat tabako lagin aztertu zuten, batzuk ur oxigenatundunak eta beste batzuk gabekoak. Lehenbizikoetan minbizi-zelulak garatu ziren, eta besteetan ez. Ondorioz, zigarro ekoizleei ur oxigenatua kentzea aholkatu diete, hilgarritasuna gutxitzeko. Gainerako osagaiekin zer? Auskalo. ■

Zigarro batean 40 substantzia minbizi eragile dagoela kalkulatu da.

JAKOBA ERREKONDO
mandio@zerain.com

Hamaika bitxilore

LANDARE JENDEAREN ARTEAN, natura osoan bezala, akabera oro hasiera kate baten atari da. Etengabeko berrikuntza eta gaztetzea dira iraupenaren, bizitzaren eta etorkizunaren kako. Neguaren amaia ospakizun, zezeileko hilbeila aipatzen nuen. Aurtengo neguari ez al zaio agurra arinegi kantatzen ari? Ahoa neurri ari da jendea udaberriaren alde. Nire begiz, azkartxo. Argi ibiltzen al garela, alegia.

Biharko egunez eguzkia ikusi baino artaldean otsoa hobea dela dio esaerak. Udaberriaren seinale-tik baino, negu xeble baten arrasto gehiago aditzen dut, bada neuk, bisurteko egunean. Eguneroko ez, baina ia biz behineko Orian barrena, beheko erriotik goiko errekarainoko joan-etorrian, negu arrunta batean pare bat edo hiru hilabetetan, bata bestearen atzetik loratzen diren landareak gaur ikusi ditut, lilidi batean. Udazkenaren amaian lorerik eman ezinik ibiliak eta lorea hemendik atzera, hilabetera ere eman beharko luketenak. Hau da hau lorearen emana!

Ahaztutako baten bat gora behera, mimosa, muxika, forsitia, udarea, sagarra, elor beltza, magnolia, sahasa, udaberri lorea, gerezi-erramua, gerezia, erramua, haritzia, hurritza, irasagarra, irasagar japoniarra, pinu beltza, zumea, ote zuria, aran japoniarra, gogortxua, zumarra, ainarra, txilarra, erratz-txilarra, hal-tza, bioleta usainduna, makala, lizarra, kame-lia, errododendroa, ilarra, aza, arbia, ilena, txikori-belarra, larrosa, girtangorria, zolda-belarra, hirusta gorria, jasmina, uztao edo migarratz txikia eta ilarrondokoa. Negu xeblea, bai.

Hartu petxu! Hanka-hutsik oin baten pean hamaika bitxilore hartzeko adina jantzi den arte udaberria ez dela iritsi, dio beste esaera batek.



Bitxilorea, udaberri seinale.



Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erremintak Soluzioak Zerbitzuak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
Industrialdea 1, 20186 Lezarte-Oria
Tel. 941.37.16.48
e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA